

2



2

3

Jaialdia  
ARGIARTEAN

# Jaialdia ARGIARTEAN

Kultur etxeen sareak sortutako **Argiar-tean** argi-jaialdiaren hirugarren edizioak berriro elkartu zuen jende andana, iazko zifrak gaintuz eta 6.000 bisitara iritsiz.

2019an sortu zen Donostia Kulturaren **Argiar-tean** plataforma **Olatu Talka** jaialdiaren barruan, hainbat diziplina eta profiletako artistek argiar-tean arloan lan esperimentalak sortzeko eta erakusteko.



© Iñaki Rubio



© Iñaki Rubio

**Loiolako Erriberetako Memoriaren Parkeko** eta **Iesu Elizako** gaueko erakustaldiak harrিতuta utzi zituen berriro ikusleak, *light-art* instalazioekin, proiektzio monumentalekin eta zuzeneko emanaldiekin. Oso positiboa izan da hirugarren edizio honen balantzea ere, erakutsi diren proposamenen aniztasunari zein herritarren erantzunari dagokionez. Udazkenekoa baino udakoa zirudien eguraldiaren laguntzarekin, herritarrek izaera esperimentaleko instalazio, proiektzio monumental eta zuzeneko emanaldi eskaintza zabalaz gozatu ahal izan zuten urriko bi gauetan.



© Iñaki Rubio



© Iñaki Rubio

Hiriko zein inguruko diziplina anitzeko artistek adin guztietako ikusle ezberdinengana iritea lortu zuten. Hurrek primeran pasa zuten hainbat instalazioren argi-jokoekin, **Gheada** estudioaren *Reflections* emanaldiarekin kasu, bai eta **Carlos Solanoren** *Objeto Especular* lanaren interaktibitatearekin ere. Ikusle helduek, bitartean, proposamen intimo eta exigenteagoez gozatu zuten, *Sala de Salas* lanaz, esaterako, proiektzio-ingurune zenitala aparteko espazio batean, **Sinergys** eta **Zine-laben** eskutik. Guztiek gozatu zuten musika proposamenez eta *foodtruck* ibilgailuz betetako terraza handiaz; bi gau arrakastatsu haiek luzatzeko gonbita egiten zuten eskaintza horiek.

Ostiralean hasi zen jaialdia, 20:00etan, ilunabarrarekin batera, **Alvaro Turrión** musikagilearen kontzertuarekin eta **Jaime De Los Ríos** artistaren lanarekin; irudi abstraktuak islatzen zituzten elizaren fatxadan, pianoaren melodiaren erritmora. Gauarekin jarraitzeko, **Laponite XLG** artistaren drag performancea izan genuen eta, amaitzeko, musika elektroniko esperimentalak, **Sabiwa + Nathan L.** musikarien eskutik.



Kroma © Iñaki Rubio

**Lumi** taldearen proposamenarekin hasi zen larunbateko egitaraua; **Nagore Legarretaren** argazkiekin batera egin zuten emanaldia, eta melankolia bereziko soinu elektronikoekin nahastuta. Jarraitzeko, **TMATMB** talde kataluniarraren kontzertua eta **Desilence** konpainiaren proiektzio hipnotikoak izan genituen. **Pablo Casares** artista eta sortzaile polifazetikoak eman zion amaiera jaialdiari, lan bikain bat aurkeztuz.



Begiekin pizteko hitzak © Iñaki Rubio



© Iñaki Rubio